



**Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>abegitsu</b> era goxoan	«Nik ez dudala izutu adierazi dit <b>abegitsu</b> .»	(67)
<b>agindu</b> hitz eman, prometitua	« <b>Agindu</b> egin dit, eta berehalaxe erreklamatu diot agindutakoa, desiatzen bainago amaren endredatze eta umearen negarrarekin gozaten hasteko.»	(116)
<b>ahobero</b> harroputza	«Ahaztu hori. <b>Ahobero</b> bat zen. Mutilek ez daukate ideia putarik ere»	(102)
<b>aiduru</b> zain, itxaroten	«Mutilen interesak eta gezurrak ondo aztertu arren, parranda giroan beti haien inguruan eta haien erreakzioen <b>aiduru</b> egon ohi gara neskek...»	(75)
<b>antxeta</b> kalatxoria	«Begira, <b>antxetak</b> zu baino ausartagoak dira.»	(17)
<b>ardailan</b> eztabaida gogorrean	«Telebista aurrean nengoen. Sukaldean <b>ardailan</b> ari ziren orduan ere.»	(26)
<b>asaldatu</b> larritu, aztoratu	«Beldurrarentzat: ikara, izua, larraialdia, atzerakoa, <b>asaldatu</b> eta beste hainbat.»	(65)
<b>auzi</b> asuntoa, arazoa	«Eta denboraren esku dauden <b>auziak</b> guk ezin ditugu aurreikusi edo aurrez jakin.»	(92)
<b>bapore</b> itsasuntzi motoreduna	«Antxetek badakite <b>baporetara</b> hurbildu litezkeela, arraina ona dela jateko.»	(18)
<b>beilan</b> esnatuta egon gauean	«...eta beheraxeago itsasoa, ni bezala <b>beilan</b> hura ere.»	(5)
<b>beirate</b> kristalezko egitura	«Dena eskuetan hartuta bazterreko mahai batera goaz, <b>beiratearen</b> ondoan.»	(82)
<b>belutxo</b> berandutxo	«Aitak modu berezi batez begiratu zidan, haren begi-ninietatik bi katagorrik salto egin nahi balute bezala, eta malkoak atera zitzaizkion <b>belutxo</b> .»	(27)
<b>birao</b> hitz itsusia, maldizioa	«Keinu zatar bat egertu zitzaion aurpegian, <b>biraoen</b> bat, botatzera balihoa bezala.»	(94)
<b>biribilkolika</b> zurrunbiloka	«Batuetan, hegaztien hotsak entzunez, haize epela basoan <b>biribilkolika</b> sentituz, ortzi kolorea aldatzen ikusiz...»	(58)
<b>borborka</b> aho beteka	«Ez aldioro, baina bai askotan. Ez zuen <b>borborka</b> jarduten, intziri apalean baizik.»	(29)
<b>burrunba</b> zaratotsa	«Orduan haizete ikaragarria sortu zen, eta <b>burrunba</b> bat, poliki-poliki gero eta ozenagoa zerutik behera»	(17)
<b>deblauki</b> bat-batean	«Ez dakit kristalen bat apurtu ote zuten edo ez, baina hotza sentitu nuen deblauki.»	(26)
<b>enparauak</b> gainerakoak	«Astelehenean jakin nuen Iban eta <b>enparauak</b> kalimotxoak edatera joan zirela neska haiekin...»	(51)
<b>etsi ezina</b> jasangaitza	«Batuetan halako itomen bat sentitzen dut barruan, <b>etsi ezina</b> zaidan zama bat banerama bezala.»	(79)
<b>ezonegon</b> urduritasuna	«Orain ez da dena argitu, baina argi zirrinta bat iritsi da, behintzat, nire zalantzek eta <b>ezonegon</b> ek iluntzen zuten basora...»	(49)
<b>eztenkada</b> ziztada	«Zaratak entzuten genituen, marinelen oihiak, motorraren karranka-hotsak, eta gure sufrimenduaren min isila, gosearen <b>eztenkada</b> garbia.»	(87)
<b>gaindegi</b> gailurra	« <b>Gaindegi</b> batera iritsiak ginen ipuina amaitu zuenean.»	(36)
<b>galga-hots</b> frenoaren zarata	«Eta presaka korridorean orraztuko ninduen, ordurako atarira iritsia zen autobusaren <b>galga-hotsak</b> urdurituta»	(26)
<b>giro izan ez</b> egoera desatsegina, jasanezina	«Gero kiratsa nagusitu zen: kaka eta pixa egiten hasi ginen denok, eta han <b>ez zen giro</b> .»	(87)
<b>goroldio</b> leku hezeetako belarkia (musgo)	«Aurpegiarekin ukitzen nituen hostoak, <b>goroldioa</b> lur bustia, umeltasuna.»	(46)



<b>hastapen</b> hasiera	«Denok daukagu gure bizitzaren <b>hastapenean</b> aurkitzen den irudi bat, oroitzapen-printza bat haurtzaroaren behe-lainoaren erdian.»	( 11 )
<b>higuin</b> nazka, antojua	« <b>Higuina</b> ematen zigun fakultate hartara sartzeak, jakinduria gordetzen zuten harresi artera...»	( 8 )
<b>hortzargi</b> irribarretsua	«Hasieran <b>hortzargi</b> eta alaitsu, laster aldatu zituen arinkeria itxurak, eta egia ukiezinak irakurtzen hasi zen»	( 13 )
<b>intziri</b> hasperena, suspirioa	«Ez aldiro, baina bai askotan. Ez zuen borborka jarduten, <b>intziri</b> apalean baizik.»	( 29 )
<b>itaunka</b> galdezka	«Neskak, Leire eta Marta alegia, aita nor zen <b>itaunka</b> hasi zitzaizkidan, eta, hirugarrenik, hori argitu nien.»	(105 )
<b>itomen</b> estutasun	«Ilun gaudenerako hor daude: tristura, pena, nekea, goibeldura, <b>itomena</b> , burumakur eta beste asko»	( 65 )
<b>izorramen</b> eragozpen larria	«A bai? Zuk egin zenuen bezala? Zu ere ahurdun ezkondu zinen. Beraz, ni <b>izorramena</b> izan naiz zure bizitzan, ezta?»	( 100 )
<b>jagole</b> zaindaria	«Kaioa izan da nire <b>jagole</b> bakarra gaur gauean»	( 6 )
<b>kalatxori</b> kaioa	«..." <b>kalatxoria</b> " ere esaten omen zaio Lekeition eta Gipuzkoako bazter batzuetan »	( 6 )
<b>kapusai</b> euritarako jantzia, zira	« <b>Kapusaiak</b> lotu eta txanoak jantzi genituen.»	( 36 )
<b>kirik egin</b> kukuka ibili	«Eta nire begirada, dena ikusi nahian <b>kirik egiten</b> zuen sagu korrikalari bat zen.»	( 11 )
<b>kukututa</b> uzkurtuta	«Horretxen (toailaren) azpian <b>kukututa</b> ederki egon naiz.»	( 5 )
<b>kurrixka</b> txilioa	«Bat-batean zaratots metaliko bat entzun nuen, ontzien astindua bezalakoa, oihuak, <b>kurrixkak</b> »	( 26 )
<b>laineza hartuta</b> harrotuta	«Zozoa kantari hasi zen txoratuta. Satorra lurpean sartu eta tunelak egiten <b>laineza hartuta</b> .»	( 20 )
<b>lokamuts</b> lozorroa	«Mahmud <b>lokamutsak</b> hartu du, gorputz erdia toailatik kanpo zuela.»	( 78 )
<b>maina</b> negar faltsuak	«Trikua goibel geratu zen, arantzapean <b>mainak</b> egiten.»	( 35 )
<b>makakorro</b> garrasi handia	«.Nil hitz hura entzunda negar gehiago egin nuen. Nire <b>makakorroen</b> erdian, kaio guztiak aireratu ziren»	( 17 )
<b>mantal</b> arropa babesteko janzkia	«Umeek negar egiten zuten hasieran, amen <b>mantal</b> azpian burua sartuta, baina gero malkorik gabe geratu ziren...»	( 87 )
<b>meneko</b> menpekotasunez	«Baina amorratu egin ninduen ikaskideek hain umil, isil eta <b>meneko</b> onartzea hizlariak esaten zigun guztia...»	( 14 )
<b>moila</b> kaia	«Arrantzaleak arraina <b>moilara</b> ateratzen ari ziren.»	( 12 )
<b>muin</b> barnea, barru-barrua	«Gelara sartzen ziren, nire ikararen <b>muineraino</b> , eta berehala desagertu, tximistaren zirta bizia zeruan bezala.»	( 12 )
<b>mukuru</b> gainezka, bete-beterik	«...eta zerua ikusten nuen izarrez <b>mukuru</b> »	( 5 )
<b>negar batean</b> etengabeko negarrean	«Egun haiek <b>negar batean</b> pasatu nituen, eta zuk negarrontzi ere deitu zenidan.»	( 100 )
<b>oinatz</b> aztarna, oinen marka	«Kaio baten <b>oinatzak</b> daude nire inguruan»	( 5 )
<b>ortzi</b> zerua	«Batzuetan, hegaztien hotsak entzunez, haize epela basoan biribilkolika sentituz, <b>ortzi</b> kolorea aldatzen ikusiz...»	( 58 )



<b>pagauso</b> maitetxo kutuna	«Deborah, nire <b>pagauso</b> politta...»	( 27 )
<b>parrastada</b> txorrotada	«Gero nire sabel gainean ikusi nuen, eta orduan bai, orduan esne <b>parrastada</b> batek egin zuen ihes zakiletik.»	( 61 )
<b>printza</b> izpia, une bateko oroitzapena	«Denok daukagu gure bizitzaren hastapenean aurkitzen den irudi bat, oroitzapen- <b>printza</b> bat haurtzaroaren behe-lainoaren erdian.»	( 11 )
<b>saihestu</b> ekidin	«Baina, nola liteke, Deborah? Ez al zenuen ikasi gauza horiek <b>saihesten</b> ?»	( 94 )
<b>saldoka</b> multzo handika	«Hegazti zuri eta dotore haiek <b>saldoka</b> jautzen ziren arrain hondakin artera.»	( 12 )
<b>segail</b> argala eta erakargarria	«Ni fisikoki ez naiz oso <b>segaila</b> .»	( 62 )
<b>talo</b> ipurdikoa	«Aldapatxo bat jaisten ari ginela, aitak irrist egin zuen eta <b>talo</b> ederra hartu ipurdian.»	( 37 )
<b>tira-tira eginda</b> guztiz teinkaturik	«Lepoko zainak <b>tira-tira eginda</b> jarri zitzaizkion.»	( 98 )
<b>txilio</b> oihua	«Goiz aldera esnatu egiten nintzen, eta <b>txilio</b> batzuk entzuten nituen, kanpotik zetozenak.»	( 11 )
<b>udatzen</b> udazkena, udagoiena	« <b>Udatzena</b> zen Iban eta biok parkera buelta bat ematera joan ginenean.»	( 44 )
<b>umeltasun</b> hezetasuna	«Aurpegiarekin ukitzen nituen hostoak, goroldioa lur bustia, <b>umeltasuna</b> .»	( 46 )
<b>umil</b> apala, xumea	«Hara iritsi orduko hasi ginen beldurrez ibiltzen, beti kalerik ezkutuenetan, beti poliziaren zelatan, taberna <b>umiletan</b> ogitartekoak janez...»	( 85 )
<b>zama</b> karga	«Batuetan halako itomen bat sentitzen dut barruan, eutsi ezina zaidan <b>zama</b> bat banerama bezala.»	( 79 )
<b>zelatan</b> ezkutuka	«Hara iritsi orduko hasi ginen beldurrez ibiltzen, beti kalerik ezkutuenetan, beti poliziaren <b>zelatan</b> , taberna umiletan ogitartekoak janez...»	( 85 )
<b>zirina</b> kaka bigun-biguna (hegaztiena)	«Zozoak ere jarri zuen <b>zirina</b> hazien gainean»	( 20 )
<b>zirrinta</b> errainua, arrastoa	«Orain ez da dena argitu, baina argi <b>zirrinta</b> bat iritsi da, behintzat, nire zalantzek eta ezinegonek iluntzen zuten basora...»	( 49 )
<b>zirta</b> distira	«Gelara sartzen ziren, nire ikararen muineraino, eta berehala desagertu, tximistaren <b>zirta</b> bizia zeruan bezala.»	( 12 )
<b>zizpuruka</b> puzka	«Haizeak <b>zizpuruka</b> mugitzen zuen itsaso okre baten aurrean geunden.»	( 45 )